

III. Kulturarteko Bizikidetza Plana (2022-2025)

Basauriko Udala

2022 MARTXOA





1.	AURKEZPENA.....	3
2.	PLANAREN FILOSOFIA	5
2.1.	Misioa eta ikuspegia	6
2.2.	Helburuak	6
2.3.	Kontzeptu-esparrua	8
2.3.1.	Kontzeptuak	8
2.3.2.	Zeharkako ikuspegiak	10
2.3.3.	Printzipioak eta jardun-eremuak	11
3.	METODOLOGIA.....	14
4.	PLANEAN ZEHAZTUTAKO EKINTZAK.....	15
4.1.	Ekintzen deskribapena	18



1. AURKEZPENA

2015ean landu zen Basauriko Udalaren Bizikidetza eta Aniztasun Plana (2016-2020) amaierara iritsi denez, gogoeta egiteko unea heldu da, urte hauetan eginiko lanari buruz eta datozen urteei begira aniztasunaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean udalak dituen beharrei buruz. Azken hilabeteetan, Basauriko Udalaren teknikariek, Begirune Fundazioak eta Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokiak lagunduta, informazioa bildu dute plan horren garapenari buruz, eta bilerak egin dituzte udalerriko gizarte-eragileekin eta migrazioen eta gizarte-ekintzaren arloan diharduten udal-teknikariek. Kontuan harturik elkarrizketa horiek eta antzeko planak dituzten EAEko beste udalerri batzuek emandako informazioa, oinarri batzuk ezarri ditugu III. Kulturarteko Bizikidetza Plan (2022-2025) hau egiteko, udalak datozen urteei begira alor honetan dituen egitasmoak biltzen dituen.

Gure udalerriara atzerritar jatorriko pertsonak iristen jarraitzen dute eta gero eta handiagoa da gure auzoetako kultura-aniztasuna, eta horregatik behar ditugu gure udalerriko kultura-aniztasun gero eta handiagoa lantzen lagunduko diguten tresnak. Gure auzoetako biztanlegoa gero eta anitzagoa da: atzerritar jatorri eta nazionalitateko pertsonak; jada espainiar nazionalitatea duten atzerritar jatorriko pertsonak; Espainiako Estatuan jaiotako atzerritar jatorriko pertsonak (atzerritar jatorriko guraso batekin), espainiar nazionalitatearekin edo atzerriko nazionalitatearekin; Espainiako Estatuan jaiotakoak eta nazionalitate espainiarra dutenak.

Basauriko biztanleen erroldari buruzko 2021eko urtarrilaren 1eko datuek¹ adierazten digutenez, gure udalerrian gertatzen ari dira Bizkaiko eta EAEko lurralde osoan gertatzen ari diren prozesu berberak: alde batetik, biztanleria autoktonoak (EAEn jaiotako pertsonak, nazionalitate espainiarrekoak) murrizten jarraitzen du (2021ean, 36.989 pertsona); bestetik, gorantz doa atzerritar jatorriko pertsonen kopurua, nazionalitate espainiarrekoak izan ala ez (2021ean, 4.013 pertsona). Datu absolutuetan, XXI. mendearen hasieratik, txikitzen ari da Basaurin erroldatutako biztanleria, jatorriz atzerrikoak diren pertsonen ekarpenak ez duelako konpentsatzen Espainiako Estatuan jaiotako biztanleriaren galera.

Aurreikuspenen arabera, datozen urteetan bi joera horiek mantenduko dira, biztanleria autoktonoaren zahartzeagatik eta jaiotza-tasa txikiagatik, eta biztanleria immigrantearen gaztetasunagatik eta dinamismo handiagoagatik.

Atzerritar jatorriko pertsonen garrantzi erlatibo gero eta handiagoa adierazten duen zifra bat da 2021ean udalerrian erroldatutako biztanleen % 10,7 gutxienez atzerritar jatorrikoa eta/edo

¹ Begirune Fundazioak eta Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokiak "Atzerriko immigrazioa Basaurin" izeneko txostena egin dute 2021ean Basauriko Udalarentzat. Txosten horrek biltzen ditu nazionalitate espainiarra, atzerritar jatorria, atzerriko nazionalitatea eta/edo atzerritar etorkia duten biztanlerien bilakaerari buruzko datu nagusiak.



etorkikoa direla (hemen ez ditugu zenbatzen espainiar nazionalitatea duten atzerritar etorkiko pertsonak), 2000. urteaz geroztik etengabe hazi den kopurua.

Gainera, nabarmendu behar da gero eta handiagoa dela jada espainiar nazionalitatea duen atzerritar jatorriko pertsona-kopurua, batez ere Latinoamerikan jatorria dutenak, nazionalitatea lortzeko zailtasun gutxiago dituztelako. Zehazki, 2021eko urtarrilaren 1ean, Basauriko 1.171 bizilagunek lortu dute jada espainiar nazionalitatea (udalerriko biztanleria osoaren % 2,9 dira dagoeneko).

Bestetik, aipatzekoa da ere nahiko ezezaguna den datu bat: Basaurin bizi diren 344 pertsonak, adin txikikoak ia denak, Espainiako Estatuan jaio arren ez dute espainiar herritartasuna lortzerik izan eta gurasoen nazionalitatea mantentzen dute, magrebtarrak nagusiki (Basauriko biztanleen % 0,8 dira, pixkanaka hazten ari den zifra).

Aniztasunaren ikuspegia osatzeko, gainerako % 7,0 atzerritar jatorriko pertsonak dira eta jatorrizko nazionalitateari eusten diote.

Erroldako datuen bilakaerari erreparatuz gero, ikus daiteke atzerritar jatorriko pertsonak udalerrira heltzeak oztopo guztiak gainditzen dituela, eta ez 2008-2014 urteetako krisi ekonomikoa ez 2020-2021 urteetako Covid-19aren osasun-krisia ez dira oztopo izan urtez urte atzerritar jatorriko pertsonen kopuruak gora egiten eta, neurri batean, biztanleria autoktonoaren bolumenaren gainbehera konpentsatzen jarraitzeko.

Kultura-aniztasuna eztaba daezina da gure udalerrian, Bizkaian eta EAEn, eta eskura ditugun datu guztiek adierazten digute etorkizun hurbilean Basauri gizarte anitzagoa eta pluralagoa izango dela, atzerriko immigrazioa egiturazko fenomeno bihurtu baita, epe ertainera behintzat. Horregatik, kanpotik datozei harrera egiteko baliabideak eta energia behar ditugula ahaztu gabe, Basauriko Udalak, bigarren plan honetan, apustu egiten du kultura-aniztasuna kudeatzeko eredu publiko baten alde: hau da, kulturartekotasunaren alde.

Eredu horrek berekin dakar oso presente izatea hiru oinarriko printzipio auzokideen arteko bizikidetzan, atzerriko immigraziotik sortutako aniztasuna modu egokian kudeatzeko: betebeharren eta eskubideen berdintasunaren printzipioa; gure praktika kulturaletan desberdintasun etnokulturalerako errespetuaren eta eskubidearen printzipioa; eta interakzio positiboaren printzipioa, bizikidetzaren harmoniatsua, eraikitzaile, parte-hartzaile eta inklusibo baten baldintza *sine qua non* gisa.

Amaitzeko, azken ñabardura bat: Basauriko Udalaren III. Kulturarteko Bizikidetzaren Plan (2022-2025) honek jarraipena ematen dio aurreko planean hasitako lanari, eta bat dator eta koherentea da beste udal-plan batzuekin eta EAEn testuinguru zabalagoan kultura-aniztasuna lantzeko indarrean dauden beste plan batzuekin.

Zehazki, honako hauekin:

- Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana (2022-2025)
- Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda.
- Nazio Batuen 2018ko Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Mundu Ituna.
- 2019ko Migraziorako Euskal Itun Soziala.

Era berean, plan hau bat dator Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin. Bereziki, honako hauekin:



- 1. GJH.- Pobreziaren amaiera: pobrezian bizi diren pertsonen proportzioa murriztea eta planetako biztanle guztiek eskubide berberak dituztela bermatzea.
- 3. GJH.- Osasuna eta Ongizatea: bizitza osasuntsua bermatzea eta adin guztietan ongizatea sustatzea.
- 4. GJH.- Kalitatezko hezkuntza: hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea eta bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzea pertsona guztientzat.
- 5. GJH.- Genero-berdintasuna: generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea, emakume eta neska guztien aurkako indarkeria-mota guztiak ezabatuz eremu publikoan eta pribatuan, salerosketa eta sexu-esplotazioa barne.
- 8. GJH.- Lan duina eta hazkunde ekonomikoa: hazkunde ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta jasangarria, enplegu osoa eta produktiboa eta pertsona guztientzako lan duina sustatzea.
- 10. GJH.- Desberdintasunak murriztea: desberdintasuna murriztea udalerrian.
- 16. GJH.- Bakea, justizia eta erakunde sendoak: gizarte baketsuak sustatzea eta justiziarako sarbide hobe izatea. Amaitu egin behar dira tratatu txarrak, esplotazioa, salerosketa, tortura eta indarkeria-mota guztiak, eta heriotza-tasak murriztu.

Basauriko Udalak konpromiso irmoa du lan egiteko gizarte bidezkoago, solidarioago eta inklusiboago baten alde, sinetsita dagoelako kohesio handiagoa eta desberdintasun sozialak murriztea mesedegarriak izango direla herritarren ongizatea eta bizikidetzaren hobeago bat lortzeko.

Horregatik, kontuan hartu behar dira Garapen Jasangarrirako Helburuak, eta txertatu egin behar dira korporazioa lantzen ari den 2030 Agendaren garapenean.

Kulturartekotasunaren aldeko apustu irmoak, kultura-aniztasuna lantzeko udal-eredu gisa, agerian uzten du Basauriko Udalaren interesa bat egiteko Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularraren aldeko Mundu Itunaren (Nazio Batuak, 2018) jarraibide globalekin. Jarraibide horiek jasota daude ere Migraziorako Euskal Itun Sozialean (Eusko Jaurlaritza, 2019).

Migrazioaren gaia funtsezkoa da gaur egungo eta etorkizuneko gizarte-garapenean. Basauriko Udalak badaki hori eta horregatik du interesa arlo honetako lanak sistematizatzeko eta koordinatzeko III. Kulturarteko Bizikidetzaren Planaren (2022-2025) bidez, aurrera egiteko udal-tresna gisa gure udalerrian bizi diren pertsona guztien giza-eskubideen errespetuan.

2. PLANAREN FILOSOFIA



2.1. Misioa eta ikuspegia

Basauriko Udalaren III. Kulturarteko Bizikidetza Planak (2022-2025) tresna operatibo bat izan nahi du, udalak herritarrei zerbitzu emateko bere funtzioa bete dezan, eraginkortasunez eta hurbiltasunez erantzuteko haien beharrei. Pertsonak gobernu-ekintzaren ardatz nagusi gisa kokatzen dituen kudeaketa-lan baten bidez, ikuspegi sozial ireki, inklusibo, integratzaile eta solidario batetik, apustu eginez tratu-berdintasunaren eta gizarte-kohesioaren alde.

Kontuan izanik Eusko Jaurlaritzaren 2022-2025 aldirako Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planak ezartzen dituen ildo estrategikoak, Basauriko Udalak lan-ildo bat ezarri du urte horietarako, koherentea kulturartekotasunaren printzipioekin, udalerriko bizikidetza modu inklusiboan eraikitzeak aukerarik demokratikoena, bidezkoena eta berdintasunezkoena den aldetik.

Helburua da eguneroko bizikidetza indartzea Basaurin, udalerrian bizi diren pertsona guztien partaidetzaz, halako moldez, non pertsona, talde, eragile eta erakunde guztiek, bakoitzak bere aukeren arabera, ekarpenak egingo dizkioten udalerriko kulturarteko bizikidetzaren etorkizun komunari.

Kulturalki desberdinak diren kolektiboen bizikidetza harmoniatsua oinarritzen da hiru oinarritzko printzipiotan, gero sakonago jorratuko ditugunak: udalerrian bizi diren pertsona guztien tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa: bizikidetzaren joko-esparrua zuzenbide-estatua da, pertsona guztientzat eskubide eta betebeharrak berberak dituenak; desberdintasunerako eskubidearen printzipioa: pertsona guztiok desberdin izateko, desberdintasun hori adierazteko eta errespetatuak izateko dugun eskubidea errespetatu behar dugu, indarrean dagoen legediaren muga bakarraz; interakzio positiboaren printzipioa: pertsona eta talde kulturalki anitzen arteko bizikidetza eraikitzen da horiek guztiek proiektu komun bati eginiko ekarpenetik eta parte hartzetik.

Plan honen bidez bultzatu nahi da bizikidetza harmoniatsu eta inklusiboa eraikitzea bideratutako lan integrala. Hala, planean jasotako neurriak hainbat alorretakoak dira, eta helburu dute tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzea, pertsonak desberdinak izateko eta desberdintasun horiek adierazteko duten eskubideaz sentsibilizatzea, eta interakzio positiboko espazioak sortzea, non udalerrian bizi garen pertsona guztiok ekarpena egin ahal izango dugun herritarren bizikidetzaren eguneroko eraikuntzan.

2.2. Helburuak

III. Kulturarteko Bizikidetza Planaren (2022-2025) helburu nagusia hau da:

- Udalerriko bizikidetza hobetzea, arreta berezia jarritz biztanle guztien tratu-berdintasunean, kulturartekotasunaren aldeko konpromisoan, kultura-aniztasuna kudeatzeko udal-eredu gisa, eta Basaurin diskriminazioa eragin dezaketen portaeren aurkako borrokan.



Helburu espezifiko gisa, honako hauek planteatzen ditugu:

- Harrera egiteko esparru bat eskaintzea atzerritar jatorriko pertsona immigratzaileei, kontuan hartuta udalerriko baliabide guztiak.
- Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzea planaren esku-hartze eremu guztietan.
- Kultura-aniztasunarekiko errespetua sustatzea Basauriko udalerrian, bai eta pertsonen kultura-desberdintasuna adierazteko duten eskubidea ere, indarrean dagoen legediaren baitan.
- Bultzada ematea kulturalki askotarikoak diren pertsonen eta pertsona-taldeen arteko trukerako, harremanetarako, hibridaziorako, sintesirako eta interakzio positiborako espazioen eraikuntzari.



2.3. Kontzeptu-esparrua

Basauriko Udalaren III. Kulturarteko Bizikidetza Planak (2022-2025) kontuan hartzen ditu hiru zeharkako ikuspegi, udal-egitura bere osotasunean hartzen dutenak: giza eskubideen ikuspegia, genero-ikuspegia eta hizkuntza-ikuspegia. Ikuspegi hirukoitz horretatik interpretatu behar dira planaren oinarriak, tratu-berdintasunaren printzipioa, desberdintasunarekiko errespetuaren printzipioa eta interakzio positiboaren printzipioa.

Nolanahi ere, lehenago, garrantzitsua da argitzea nola ulertzen ditugun planaren izenean dauden hiru kontzeptu nagusiak.

2.3.1. Kontzeptuak


Kulturartekotasuna

Plan honen giltzarria da: kulturartekotasuna hartzea Basauriko Udalaren kultura-aniztasuna kudeatzeko eredu publikotzat. Helburua da asimilazionismoaren eta multikulturalismoaren ereduak gainditzea eta apustu egitea udalerrian bizi diren pertsona guztien kultura-aniztasuna kudeatzeko eredu demokratikoago, inklusiboago eta integratzaileago baten alde. Apustu horren bidez, Basauriko Udalak adierazi nahi du kulturartekotasuna zabaltzeko duen asmo irmoa, basauritarren egungo eta etorkizuneko harremanak garatzeko esparru gisa, haien jatorria edozein izanda ere.

Kulturartekotasunaren alde egiteak haren hiru printzipioak onartzea dakar, Carlos Giménezek nabarmendu bezala (El Interculturalismo: propuesta conceptual y aplicaciones prácticas. Ed Ikuspegi, 2010): berdintasun-printzipioa, desberdintasun etnokulturalarekiko errespetuaren eta eskubidearen printzipioa, eta interakzio positiboaren printzipioa.

1. Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa: Basauriko udalerrian bizi diren pertsona guztiek, edozein izanik ere haien jatorria edo nazionalitatea, eskubide eta betebeharrak berberak dituzte (ardatz juridikoa), bai eta aukera berberak ere gizarte-alorrean aritzeko (ardatz soziala).
2. Desberdintasun etnokulturalarekiko errespetuaren eta eskubidearen printzipioa: Basauriko udalerrian bizi diren pertsona guztiek eskubidea dute beren praktika kulturaletan desberdinak izateko eta desberdintasun horiek erakusteko, betiere legedia errespetatuta. Xedea da BESTEA errespetatzearen printzipio etikoa betetzea, errespetatu eta aintzat hartzeko moduko subjektua den aldetik (ardatz etikoa), haren desberdintasun kulturalak publikoki adierazteko aukera ematea (ardatz juridikoa) eta desberdintasun horien onarpen instituzionala exijitzea (ardatz politikoa).
3. Interakzio positiboaren printzipioa: aktiboki sustatzea Basauriko udalerrian bizi diren pertsonen harremanak, interakzioa, komunikazioa, elkar ezagutza, hurbilketa, konbergentzia, hibridazioa eta sintesia. Helburua da kulturalki askotarikoak diren pertsonen eta taldeen egiazki elkar ezagutzea (ardatz kognitiboa), enpatia eta tolerantzia sustatzea (jarrerazko ardatza) eta topaketa eta interakzio sozialerako espazioak eraikitzea (portaerazko ardatza). Aurrerago azpimarratuko dugun bezala, interakzio positiboak berekin dakar pertsona guztiek eraginkorki parte hartzea Basauriko udalerriko bizikidetzaren eguneroko eraikuntzan.

1. eskema. Kulturartekotasunaren oinarriak



Basauriko Udalaren III. Kulturarteko Bizikidetza Plana (2022-2025) bat dator Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planarekin; zehazki, V. planean ere jasotzen zen ideia honekin: *"Kulturartekotasunaren politikak berekin dakar dibertsitatearen kudeaketa positiboa eta inklusiboa egitea, helburutzat hartuta oraingo gizartea aldatzea, eta kultura berri bat sortzea subjektu kulturalki desberdinen arteko interrelazioen eta interakzioen ondorio"* (Eusko Jaurlaritzaren V. Planaren 18. or.).

Immigrazioa

Gure ustez, kulturartekotasuna da gure udalerriaren kultura-aniztasun gero eta handiagoa kudeatzeko estrategiarik onena, herritarren gizarte-harremanetarako arau demokratikoak ezartzen dituelako, gure portaerak arautzen dituen zuzenbide-estatuaren eskubide eta betebeharretan oinarrituta.

Gure komunitatea kulturalki oso anitza da, azken hamarkadetan bizi izan dugun eta etorkizun hurbilean behintzat jarraituko duen atzerriko immigrazioaren gizarte-fenomenoarengatik.

Basauriko bizilagunak kulturalki duela urte batzuk baino anitzagoak dira eta etorkizunean ere hala izango dira. Gizarte-joerek adierazten digutenez, datozen urteetan Basaurin handitu egingo da atzerriar jatorriko bizilagunen kopurua. Jabetu eta onartu egin behar dugu migrazio-mugimenduak direla gaur egun gure gizartea eraikitzeko prozesu sozialetan eragiten ari den fenomeno sozial garrantzitsua. Neurri handi batean, Basauriko komunitatearen bizikidetzaren arrakasta izango da migrazio-mugimenduak behar bezala kudeatzeko gaitasunaren arabera, herritartasun berria onartuz eta pertsona eta gizarte-talde guztien goranzko gizarte-mugikortasuna ahalbidetuz.



Bizikidetza

Immigrazioaz eta kultura-aniztasunaz ari garenean, gizarteratzea ere aipatu behar dugu, prozesu dialektiko gisa ulertuta, non parte hartzen duten udalerrian bizi diren atzerritar jatorriko pertsonak eta bertakoek. Prozesu hori hartu behar da elkarrekiko integraziotzat, hainbat kulturatako pertsonak bat egiten duten gizarte-testuinguru berean. Gizarteratzea ulertzen dugu aldeak (biztanleria autoktonoa eta immigrantea) osotasun baten barruan sartzeko prozesu gisa, zeinak izaera propioa hartzen duen integrazio inklusiboaren prozesuan bertan. Kontua ez da atzerritar jatorriko pertsonak aurrez ezarritako testuinguru batean sartzea, testuinguru hori interakzioak berak *ex novo* sortzea baizik.

Ondorioz, gizarteratzeaz aritzean, ezin dugu hitz egin soilik etorkinen egokitzapen-prozesuez, eta ezin dugu mugatu haren izaera prozesu asimilazionista soil batera. Kulturartekotasunaren kontzeptuak eta kulturen arteko praktikak behartzen gaituzte gizarteratzea hartzera prozesu dialektiko eta interaktibotzat, Basauriko komunitatea osatzen duten pertsona guztien artean, edozein izanik ere haien jatorria, etorkia eta/edo nazionalitatea.

2.3.2. Zeharkako ikuspegiak

Basauriko Udalaren III. Kulturarteko Bizikidetza Planak (2022-2025), bat etorritz bere misioarekin eta beste udal-plan batzuekin, aintzat hartzen ditu zeharkako hiru ikuspegi: generoa, giza eskubideak eta hizkuntza (euskara).

- **Giza eskubideen ikuspegia:** planak bere egiten du guztiz giza eskubideen ikuspegia. Plana egitean, oso kontuan hartu dugu Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala; bereziki, 2., 6., 7. eta 13. artikulua. Era berean, aintzat hartu dira Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen eta Europar Batasuneko Ordenamendu Juridikoaren hainbat artikulua. Zehazki, honako hauek: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 2.1 artikulua, Giza Eskubideen Europako Konbentzioaren 14. artikulua, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 2.1 artikulua eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 2.2 artikulua.

Halaber, planak kontuan hartzen du ere Migrazioarako Euskal Itun Soziala, printzipio hau espresuki jasotzen duena (10-11. or.), jarduketa-ikuspegian bat etorritz, honako hau dioenean: *"Immigrazioaren fenomenoari ez diogu heltzen termino utilitaristetan, gizatasun- eta justizia-terminoetan baizik"*.

Bestetik, plan hau bat dator Nazio Batuek 2018ko abenduan onartutako Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularerako Mundu Itunarekin, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean oinarritutakoa.

Hori guztia, jakina, Basauriko Udalak kultura-aniztasuna kudeatzeko duen eskumen-esparruaren barruan, kulturarteko bizikidetzari dagokionez, eta aintzat harturik urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoak (atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa) elkarbizitza-prozesuen kudeaketan ezartzen dizkion mugak.

- **Genero-ikuspegia:** Basauriko Udalaren III. Kulturarteko Bizikidetza Planak (2022-2025) konpromiso berezia du genero-ikuspegiarekin, eta ikuspegi horrek zeharkatzen eta orientatzen du bere osotasunean.

Ikuspegi honek esan nahi du sistematikoki aztertu behar direla emakumeen eta gizonen baldintzen, egoeren eta premien arteko aldeak, plan baten ekintzak lantzeko, betearazteko eta ebaluatzeke fase guztietan.



Genero-ikuspegiari esker azter eta ikusaraz ditzakegu emakumeek eta gizonek bizitzaren esparru guztietan dituzten errealitateak, batez ere kulturarteko bizikidetza bezalako esparru garrantzitsu batean.

Planak kontuan hartzen du ere hainbat faktorek (adina, hizkuntza, identitatea, sexu-orientazioa, dibertsitate funtzionala, etnia, jatorrizko herrialdea etab.) eragindako desberdintasun batzuekiko genero-intersektionalitatea.

- **Hizkuntzaren ikuspegia (euskara):** hizkuntzaren gaiari dagokionez, gizarte harrera-egilearen hizkuntzak ikastea funtsezkoa da pertsona immigranteen eta autoktonoen gizarteratze-prozesuan, arlo guztietan: lan-arloa, soziala, hezkuntza, harremanak, kide izatea, etab. Euskal gizartean bi dira hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania), nahiz eta ikuspegi soziolinguistikotik bi hizkuntzen presentzia oso desberdina den, lurraldeen eta eskualdeen arabera.

Hori horrela, garrantzitsua da hizkuntza bien ikaskuntza eta erabilera erraztea edozein pertsonari, haren jatorria edo bestelako kontsiderazioak gorabehera. Beraz, ezinbestekoa izango da atzeritar jatorriko pertsonen euskara eta gaztelania jakitea eta erabiltzea erraztuko dieten programak indartzea, bereziki euskararen kasuan. Izan ere, euskara basauritarren hizkuntza nagusia ez izan arren, funtsezko elementua izan daiteke egungo eta etorkizuneko biztanleria immigrantearen gizarteratzean eta inklusioan, horixe izanik Basauriko Udalak aniztasuna kudeatzeko bultzatzen duen kulturarteko ereduaren helburuetako bat.

Era berean, aintzat hartzea beste leku batzuetatik etorritako pertsonen hizkuntzak elementu garrantzitsua izan daiteke aniztasunaren kulturarteko kudeaketaren testuinguruan.

2.3.3. Printzipioak eta jardun-eremuak

Basauriko Udalaren III. Kulturarteko Bizikidetza Planaren (2022-2025) helburuak eta ekintzak orientatzen dituzten oinarrizko hiru printzipioak dira aniztasuna kudeatzeko kulturarteko ereduaren oinarrian daudenak eta aurretik aipatu ditugunak:

- **Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa:** Basaurin bizi diren pertsona guztiek tratua jaso behar dute eta ez dute inolako diskriminaziorik pairatu behar, inolako arrazoiengatik. Eremu honetan bi ekintza-multzo sartzen dira: 1) Basaurin bizi diren pertsona guztien tratua-berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko ekintzak, batez ere udalaren araudiarekin, erregelamenduekin, zirkularrekin eta abarrekin zerikusia duten gaietan. Herritarren eskubideak eta betebeharrak jorratzen dituzten ekintzez ari gara (ardatz juridikoa); 2) Basaurin bizi diren pertsona guztiek Udalaren edozein egitasmo, ekintza, programa eta abarretan parte hartzea bermatzeko ekintzak. Aukera-berdintasunari buruzko ekintzez mintzo gara (ardatz soziala).

Arlo honetan oso kontuan hartzen dira 2000n eta 2002an onartutako Erkidegoko zuzentarauak (Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2000/43/EE Zuzentaraua, EEO, L180, 2000.7.19; Kontseiluaren 2001eko azaroaren 27ko 2000/78/EE Zuzentaraua,



EEAO, L303, 2000.12.2; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko iraileko 2002/73/EE Zuzentaraua, EEAO, L296, 2002.10.5). Tratu-berdintasunaz mintzo garenean, honetaz ari gara: "*arraza- edo etnia-jatorrian, erlijioan, sinesmenetan, desgaitasun-arrazoietan, adinean edo sexu-orientazioan oinarritutako diskriminaziorik eza, bai zuzenekoa bai zeharkakoa*".

- **Desberdintasun etnokulturalarekiko errespetuaren eta eskubidearen printzipioa:** kulturartekotasunaren barruan, printzipio hau oinarritzen da Basauriko udalerrian bizi diren pertsona guztiek beren praktika kulturaletan desberdinak izateko eta desberdintasun horiek erakusteko duten eskubidean, betiere legedia errespetatuta. Arlo honek barne hartzen ditu Basauriko Udalak hiru atal hauei lotuta garatzen dituen edo abian jarriko dituen ekintza guztiak: 1) BESTEAREKIKO errespetua, BESTE PERTSONEKIKO errespetua sustatzera bideratutako udal-ekintzei erreferentzia egiten diena, edozein izanik ere jatorria, generoa, adina, hizkuntza etab. BESTEAREN aitortza etikoa helburu duten ekintzak dira (ardatz etikoa); 2) Kultura-praktika guztien adierazpen-askatasuna, elkartzeko eskubidea, manifestazioa etab. sustatzera bideratutako udal-ekintzak, legedia errespetatuta beti. Kultura-desberdintasuna adierazteko eskubidea sustatzen duten ekintzak dira (ardatz juridikoa); 3) Kulturalki desberdinak diren pertsonak eta kolektiboak aitortzeko ekintzak, erakundeetatik eta Basauriko Udaletik bertatik. Ekintza hauen barruan daude aitortza instituzionalera bideratutako ekintzak (ardatz politikoa).
- **Interakzio positiboaren printzipioa:** kulturarteko ereduan, printzipio hau saiatzeko beste urrats bat egiten eta aktiboki sustatzen harremanak, interakzioa, komunikazioa, elkar ezagutza, hurbilketa, konbergentzia, hibridazioa eta sintesi. Hirugarren alor honek barne hartzen ditu udalerrian dagoeneko garatzen ari diren hainbat ekintza eta ekintza berri batzuk. Hiru motatakoak dira: 1) Kulturalki desberdinak diren pertsona eta kolektiboei buruzko informazioa emateko eta elkar ezagutza sustatzeko ekintzak, aurre egiteko atzeritar jatorriko pertsonen estereotipo faltsuei eta aurreiritziei. Pertsonak benetan nolakoak diren jakitea helburu duten ekintzak dira (ardatz kognitiboa); 2) Kulturalki desberdinak diren pertsona eta kolektiboekiko jarrera positibo eta errespetuzkoak sustatzera bideratutako ekintzak (jarrerazko ardatza); 3) Kulturalki desberdinak diren kolektiboen elkargune, komunikazio, hibridazio, sintesi eta interakzio sozialerako espazioak sortzera bideratutako ekintzak. Interakzio positiboa sustatzeaz eta jokabide xenofobo eta baztertzailerak adierazteko zigorgabetasun-espazioak murrizteaz ari gara (portaerazko ardatza).

Arlo hau oinarritzen da kulturarteko bizikidetzan ardazturiko gizarte-eraldaketaren ikuskeran, bizikidetzari hori ulertuta Carlos Giménez bezalako egileek erabilitako zentzurik hertsienean, pertsonen arteko topagune eta gizarte-erakuntzaren truke eraldatzaile gisa, non parte har dezaketen izaera, jatorri eta genero desberdineko pertsona eta/edo pertsona-talde guztiek. Kulturartekotasunak behar du "*interakzio positiboa kulturalki desberdinak diren subjektu indibidualen eta kolektiboen arteko harremanetan*" (Carlos Giménez, 2010, Ikuspegi, 26. or.).

Atzerriko immigrazioaren kultura-aniztasuna kudeatzeari begira Basauriko Udalak abian dituen eta datozen urteetan abian jarriko dituen ekintzak antolatze aldera, III. Kulturarteko Bizikidetzari Planak (2022-2025) bost **eremu** bereizten ditu kulturarteko ereduaren oinarritzeko hiru printzipioak aplikatzeko.

Honako hauek dira jardun-eremuak:



1. Udalaren konpromisoa kulturartekotasunarekin. Eremu hau egituratzen da oso garrantzitsua delako udalean barne-lan bat egitea, aniztasunaren benetako kulturarteko kudeaketa egiteko haren politiketan.
2. Harrera. Kontuan hartu beharreko funtsezko eremua da bizilagun berriak udalerrian integratzeko prozesuan, udalerria hartuta bizitza garatzeko eta gizarteari ekarpena egiteko lekutzat.
3. Hezkuntza. Hezkuntza-eremua eremu ezin hobe bat da balioetan (hala nola errespetua eta desberdintasunerako eskubidea) oinarritutako hezkuntza-estrategiei heltzeko, horixe izanik plan honen helburua. Jakina, hezkuntza interakzio naturaleko eremu bat da, aukera ematen duena herritartasun inklusiboan eta kulturartekoan sakontzeko eta esperimendatzeko. Bestetik, ezinbesteko eremua da belaunaldi berrien inklusio pertsonal, sozial eta laboreko prozesuen arrakastari begira lan egiteko, sozializazioaren eta formakuntzaren bidez.
4. Formakuntza eta enplegua. Enplegua lortzea faktore askok baldintzatzen duten arren (besteak beste, administrazio-egoerak), funtsezkoa da neurriak artikulatzea eskumena duten zerbitzu eta baliabideekin batera, formakuntza eta enplegua errazteari begira, funtsezkoak baitira autonomiarako, inklusiorako eta gizartean parte hartzeko.
5. Sentsibilizazio eta interakzio soziala. Gizarteratzea hartu behar da elkarrekiko integrazio-prozesutzat, kultura desberdineko pertsonen gizarte-testuinguru berean bat egiten dutenean aktibatzen dena, eta horregatik da garrantzitsua jardun-eremu hau planean, arreta jartzen baitu Basauriko udalerrian bizi diren pertsonen arteko harremanetan, interakzioan, komunikazioan, elkar ezagutzan, hurbilketan, konbergentzian, hibridazioan eta sintesian.



3. METODOLOGIA

Atal honetan azalduko dugu zer urrats egin eta zer tresna metodologiko erabili diren Basauriko Udalaren III. Kulturarteko Bizikidetza Plana (2022-2025) lantzeko beharrezkoa zen informazioa lortzeko.

Diseinu metodologikoa eta informazioa biltzeko estrategia egin ditu Begirune Fundazioko eta Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokiako teknikariek osatutako talde batek. Metodologia kualitatiboa erabili da, eta plan honen ezaugarri nagusia izan da kontuan hartu dituela uneoro Basauriko kultura-aniztasunean inplikaturik dauden eragileak. Kokreazioa izan da planaren sormen-dinamikaren ardatz nagusia; hau da, aintzat hartzea informazio-bilketan inplikaturik dauden pertsonak:

1. Kabinete- eta dokumentazio-lanak:
 - Informazio-bilketa Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokiak azken bost urteetan aniztasun-planak testuinguruan kokatzeko egin dituen udal jarduerak buruz.
 - Udal-eroldaren azterketa, migrazio-fenomenoaren bilakaerari eta Basauriko herritarren osaera sozialari buruzko zifra garrantzitsuak eman dituenak.
2. Kultura-aniztasunaren udal-kudeaketan adituak diren pertsonak osatutako lantalde bat, gogoeta egin duena eta eztabaidatu aniztasunarekin, bizikidetzarekin eta udal-planekin lotutako alderdiei buruz.
3. Zortzi elkarriketa sakon udalerrian gakoak diren hamar eragile politikori eta teknikariri, arlo sozialean, politikoan, immigrazioan eta bizikidetzan. Aztertutako gaiak izan dira udalerriko joera sozialak: immigrazioaren egungo eta etorkizuneko egoera udalerrian, xeheki aztertuta, besteak beste, integrazio-prozesuak, aniztasunean oinarritutako bizikidetza, trabak eta oztopoak, eremu bakoitzeko arazo nagusiak, etab.
4. Bi talde-dinamika: bata, udal-arloetako pertsonak osatua; bestea, gakoak diren herritarrek eta udalerriko gizarte-erakundeetako ordezkariak eratua. Bi dinamika horiek gauzatu dira bi tailer kokreazioan, partaideek batera aztertutako udalerriko arazoak eta irtenbideak bilatzeko arazo horientzat. Tailer horietatik ateratako ondorioak erabili dira Basauriko Udalaren III. Kulturarteko Bizikidetza Planaren (2022-2025) oinarriak finkatzeko.



4. PLANEAN ZEHAZTUTAKO EKINTZAK

Basauriko Udalaren III. Kulturarteko Bizikidetza Planak (2022-2025) 25 ekintza ezartzen ditu. Lehen aipatu ditugun bost eremuetan multzokatu ditugu.

1. Kulturartekotasunarekiko udal-konpromisoaren eremua: eremu honetan bereiz ditzakegu izaera politikoko ekintzak (lau ekintza), teknikoak (lau ekintza) eta komunikaziora eta hedabideetara bideratutakoak (bi ekintza). Ekintza hauek lotura zuzena dute Basauriko Udalean aniztasuna kudeatzeko kulturarteko estrategia inplementatzeari begira egin behar den barne-lanarekin. Guztira, hamar ekintza garatuko dira eremu honetan.
2. Harreraren eremua: gure udalerrira bizitzera datozen atzerritar jatorriko pertsonen harrera bezalako zeregin garrantzitsura bideratutako ekintza-multzo bat da. Sei ekintza garatuko dira alor honetan.
3. Hezkuntzaren eremua: biltzen ditu Basauriko Udalak udalerriko ikastetxeei tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko lanean eta desberdintasunarekiko errespetuan laguntzeko abian jarriko dituen egitasmo eta ekintza guztiak. Hori guztia ekintza bakar batean jaso da.
4. Formakuntzaren eta enpleguaren eremua: eremu honetan Basauriko Udalak bi ekintza jarriko ditu abian, bultzada emateko atzerritar jatorriko pertsonen gizarteratzea eta laneratzea errazteari begira formakuntza- eta lan-baliabideen eta -zerbitzuen sare-lanari.
5. Sentsibilizazioaren eta interakzio sozialaren eremua: azkenik, eremu honetan, Basauriko Udalak sei ekintza garatu nahi ditu, elkar ezagutza, harremanak, parte-hartzea, enpatia eta bizikidetza sustatzen jarraitzeko udalerriko bizilagunen artean.

1. Kulturartekotasunarekiko udal-konpromisoaren eremua

Izaera politikokoak:

- 1.1. Zero tolerantzia jarrera udalbatzaren diskurtso politikoan.
- 1.2. Udalbatzarentzako urteko formakuntza-programa migrazio-prozesuen, kulturartekotasunaren eta aniztasunaren kudeaketaren arloan.
- 1.3. Udalaren posizionamendu publikoa tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde, *eta herritarrek gonbidatzea horrekin bat egitera*.
- 1.4. Kulturarteko ikuspegia sartzeari beste udal-plan batzuetan (2030 Agenda, Euskara Plana, etab.).



Teknikoak:

- 1.5. Abian jartzea Udalean alerta-dispositibo bat aurre egiteko diskriminazio-egoerei eta eskubideen urraketei.
- 1.6. III. Kulturarteko Bizikidetza Planean inplikaturako udal-sailen kopurua handitzea.
- 1.7. Bultzada ematea barne-mailan tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren ikuspegiari, oztoporen bat sor dezaketen edo inklusiboagoak izan daitezkeen alderdiak aldatuta udal-zerbitzuak eskuratzeko araudietan eta izapideetan.
- 1.8. Teknikarientzako urteko formakuntza-programa, migrazio-prozesuei, kulturartekotasunari, aniztasunari, tratu-berdintasunari eta estereotipoen eta aurreiritzien aurkako borrokari buruzkoa, hobeto bete ditzaten gizarte anitz batean administrazio publiko gisa dituzten zereginak.

Komunikazioa eta hedabideak:

- 1.9. Udal-komunikazioko politika bat finkatzea, bat etorriko dena kulturartekotasunaren balioekin (tratu-berdintasuna, desberdintasunerako eskubidea eta interakzio positiboa).
- 1.10. Bi urtez behingo lan-tailerrak tokiko hedabideekin, migrazioaren gaiari buruz sentsibilizatzeko eta gogoeta egiteko, eta gai hau lantzeko giza eskubideen errespetutik.

2. Harreraren eremua

- 2.1. Harrera- eta inklusio-sarea indartzea, bizilagun berriei laguntzeko baliabideak eskuratzen, eta, hala badagokio, inklusioa errazteko neurri koordinatuak hartzea.
- 2.2. "Ongi etorri" harrera-gida optimizatzea, profesionalentzako lan-tresna eta iritsi berrientzako informazio-tresna gisa.
- 2.3. Abian jartzea "Basauri interkulturala" webgunea eta jarraipena ematea Udalaren Facebook-ari, baliabideei, bizikidetzari, aniztasunari, legediari, kulturartekotasunari eta abarri buruzko informazio interesgarria zabaltzeko.
- 2.4. Bultzada GERTU zerbitzuari (Atzerritarrentzako aholkularitza juridikoko udal-zerbitzua).
- 2.5. Gaztelania ikasteko ibilbide koordinatua sustatzea.
- 2.6. Euskararen munduari loturiko erakunde eta entitateen sarea sustatzea, pertsona migratzaileek hizkuntza ikasi eta erabil dezaten.

3. Hezkuntzaren eremua

- 3.1. Ikastetxeekiko lankidetzaren sustatzea bizikidetzari, aniztasunari, tratu-berdintasunari, diskriminaziorik ezari, desberdintasunerako eskubideari, gizarte-kohesioari eta abarri dagokienez, ikasleei, irakasleei eta guraso-elkarteei begira.



4. Formakuntzaren eta enpleguaren eremua

- 4.1. Sare-lana sustatzea enpleguari eta formakuntzari loturiko erakunde guztiekin, gizarteratzeko eta laneratzeko eta etorkinen enplegarritasuna hobetzeko prozesuak zehazte aldera.
- 4.2. Atzerritar jatorriko emakumeak aktibatzea, haien gizarteratzea eta laneratzea errazteko.

5. Sentsibilizazioaren eta interakzio sozialaren eremua

- 5.1. Udalak lagundutako elkarteek kulturarteko bizikidetza sustatzeko eginiko praktikak indartzea, eta aniztasunaren errespetua eta tratu-berdintasuna sustatzea haren egiturari eta funtzionamenduan.
- 5.2. Tratu-berdintasunarekiko, desberdintasunerako eskubidearekiko eta interakzio positiboarekiko konpromisoa sozializatzea elkarte-sarean eta Basauriko herritarren artean, aniztasuna kudeatzeko Planak dituen elementu gisa.
- 5.3. Bultzada ematea bizikidetzaren, aniztasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloari loturiko erakundeak indartzeko eta haien gizarte-partaidetzarako prozesuari.
- 5.4. Atzerritar jatorriko pertsonen Basauri bezalako udalerri anitz baten bizitzan parte har dezaten sustatzea (elkarteak, guraso-elkarteak, partaidetza-prozesuak, hauteskundeak, jaiak, espazio publikoak, kulturalak, kirolekoak, auzokoak, etab.).
- 5.5. Zurrumurruen aurkako estrategia bat finkatzea udalerrian, herritarren sentsibilizaziorako eta partaidetzarako tresna gisa.
- 5.6. Basauri ikusaraztea jada baden gizarte anitz gisa, egunez egun eraikitzen dena guztion elkarpenen bidez.



4.1. Ekintzen deskribapena

	1. KULTURARTEKOTASUNAREKIKO UDAL-KONPROMISOAREN EREMUA
EKINTZA	1.1. Zero tolerantzia jarrera udalbatzaren diskurtso politikoan
XEDE-TALDEA	Udalbatza.
DESKRIBAPENA	- Jarraipena ematea Udalak etorkinekiko tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde duen posizionamenduari, legegintzaldiko planean jasota. - Konpromisoarekiko koherentziari eustea adierazpen instituzional arruntetan. - Indartzea bai ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarearekiko udal-posizionamendua bai egitasmo horri atxikitzea eragin zuen udalaren apustua.
HELBURUA	Diskurtso politikoa aktiboki erabiltzea diskriminazioaren aurkako eta udalerrriaren kulturarteko bizikidetzaren aldeko borrokan.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Legegintzaldiko plana idaztea Eginiko adierazpenak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Immigrazioko teknikariaren balorazio kualitatiboa.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria Immigrazioko zinegotzia
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



1. KULTURARTEKOTASUNAREKIKO UDAL-KONPROMISOAREN EREMUA	
EKINTZA	1.2. Udalbatzarentzako urteko formakuntza-programa migrazio-prozesuen, kulturartekotasunaren eta aniztasunaren kudeaketaren arloan.
XEDE-TALDEA	Udalbatza.
DESKRIBAPENA	- Talde politiko guztien parte-hartzea migrazioekin, kulturartekotasunarekin, aurreiritzi eta pertzepzioekin, bizikidetzarako eta gizarte-kohesiorako esparruak finkatzeko klase politikoaren zereginarekin... loturiko gaiei buruzko urteko formakuntza-saioetan, bai eta unean-unean sor daitezkeen beste gai batzuei buruzko formakuntza-saioetan ere. - Lehenengo saioa izango da III. Kulturarteko Bizikidetzeta Plana eta haren testuingurua aurkeztea.
HELBURUA	Basauriko Udaleko talde politikoak sensibilizatzea migrazioaren fenomenoaz eta udalerrian duen presentziaz. Gai hauei buruzko gogoeta eta eztabaida bultzatzea, zero tolerantzia indartzeko diskriminazioaren eta xenofobiaren aurkako borrokan. Politikariak trebatzea aniztasunaren kulturarteko kudeaketan, kudeaketa hori aplikatzeak bizikidetzan dituen inplikazioetan eta politikarien nahiz erakundearen rolean. Tresnak ematea ordezkari publikoei, aurre egiteko estereotipo faltsu eta negatiboei eta atzerritar jatorriko pertsonen diskriminazioari.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Eginiko formakuntza-saioak Talde politiko eta pertsona parte-hartzaileen kopurua.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Pertsona parte-hartzaileen balorazioak. Immigrazioko teknikariaren eta zinegotzi delegatuaren balorazio kualitatiboa.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria Immigrazioko zinegotzia
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



1. KULTURARTEKOTASUNAREKIKO UDAL-KONPROMISOAREN EREMUA	
EKINTZA	1.3. Udalaren posizionamendu publikoa tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde, <i>eta herritarrak gonbidatzea horrekin bat egitera.</i>
XEDE-TALDEA	Udalbatza Basauriko Udaleko teknikariak Basauriko herritarrak.
DESKRIBAPENA	- Adierazpenak plazaratzea gutxienez data hauetan: martxoaren 21ean, maiatzaren 21ean eta abenduaren 18an, adierazpen horietan aldarrikatuz tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza, desberdintasunerako eskubidea eta kulturarteko bizikidetzak gizarte kohesionatu batean duen garrantzia. - Adierazpen horiek zabaltzea herritarren artean eta udal barruan. - Aliantzak egitea elkarrekin, adierazpen bateratuak egiteko, adierazpen horiek zabaltzeko edo horiekin bat egiteko.
HELBURUA	Kulturarteko bizikidetzaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko diskurtso publikoa sortzea Basauriko Udaletik.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Idatzitako eta Bozeramaileen Batzordeari aurkeztutako adierazpenen kopurua.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Bozeramaileen Batzordean onartutako adierazpenen kopurua. Idazteko/bat egiteko prozesuan parte hartu duten erakundeen kopurua.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



1. KULTURARTEKOTASUNAREKIKO UDAL-KONPROMISOAREN EREMUA	
EKINTZA	1.4. Kulturarteko ikuspegia sartzeari buruzko udal-plan batzuetan (2030 Agenda, Euskara Plana, etab.).
XEDE-TALDEA	Udal-teknikariak. Udalbatza. Herriarrak.
DESKRIBAPENA	- Udalean egiten ari diren plan espezifiko eta zeharkako guztiak ezagutzeari. - Sentsibilizazioa eta koordinazioa teknikari arduradunekin. - Idazketan parte hartzea, kulturarteko ikuspegia txertatzeko proposamen zehatz baten bidez.
HELBURUA	- Kulturartekotasunaren aldeko apustua bermatzea udalerriko aniztasunaren kudeaketan, kulturartekotasuna zeharkako gaitzat harturik udal-politika guztietan, ez bakarrik immigrazio-departamentuaren jardueretan. - Kulturartekotasuna eta migrazioaren gaia zabaltzea udalaren jardun-eremu guztietara.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Planak idaztean ekarpenak kulturarteko ikuspegitik egiteko jasotako eskaerak. Teknikari arduradunekin batera lan egin den planen kopurua.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Planetan sartutako neurriak edo testuak.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria/Teknikariak/Arduradun politikoak
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



1. KULTURARTEKOTASUNAREKIKO UDAL-KONPROMISOAREN EREMUA	
EKINTZA	1.5. Abian jartzea Udalean alerta-dispositibo bat aurre egiteko diskriminazio-egoerei eta eskubideen urraketek.
XEDE-TALDEA	Herritarrentzako Arreta Zerbitzua. Udal-teknikariak. Auzo-bitartekaritzako taldea. Aholkularitza juridikoa. Udaltzaingoa. Migrazioen alorreko elkarteak. Herritarrak, oro har.
DESKRIBAPENA	- "Diskriminazioa" kategoriatik sartzea AKIetan. - Formakuntza hainbat diskriminazio-motetan, nola jokatu kasu horietan eta salaketarako baliabideak (Eraberean Sarea). - Diskriminazio-egoerak eta eskubideen urraketak jasotzea departamentu eta zerbitzuetan (gizarte-ekintza, HAZ, auzo-bitartekaritzako taldea, etab.). - Mekanismo bat ezartzea kasuak zentralizatzeko eta kasu bat detektatzean jarduteko modua zehazteko, honako hauek zehaztuta: arduraduna, deribazioa eta kasuen tratamendua. - Funtzionamenduaren urteko ebaluazioa
HELBURUA	Udalerrian diskriminazio-egoerak ikusaraztea eta horiek zuzentzeko neurriak kudeatzea. Salaketarako baliabideak ezagutaraztea eta hedatzea: Eraberean Sarea
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Eginiko formakuntza Kategoria aktibatzea
EMAITZEN EBALUAZIOA	Identifikatutako diskriminazio-kasuen kopurua
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria
IRAUPENA/DATA	2023, 2024, 2025



	1. KULTURARTEKOTASUNAREKIKO UDAL-KONPROMISOAREN EREMUA
EKINTZA	1.6. III. Kulturarteko Bizikidetza Planean inplikaturako udal-departamentuen kopurua handitzea.
XEDE-TALDEA	Basauriko Udaleko, erakunde autonomoetako eta udal-enpresetako teknikariak, eta politika publikoak betearazten ari diren kontratak.
DESKRIBAPENA	- Plana aurkeztea Basauriko Udaleko departamentu, erakunde autonomo, udal-enpresa eta kontratei, Udala kulturartekotasunaren alde egiten ari den apustua ezagutzeko, aniztasuna kudeatzeko modu gisa. - Infografia, tip eta beste baliabide batzuk diseinatzea, etengabeko informazio-eta partaidetza-prozesu bat dinamizatzeko, ez soilik planaren hasieran aurkezpen bat egiteko. - Ongietorri Eskuliburu bat egitea, Udalaren balioak jasoko dituen (besteak beste, kulturartekotasunaren aldeko apustua bizikidetzaren kudeaketan, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza), udal-plantillan sartzen diren pertsonen artean banatzeko. - Koordinaziorako aldizkako espazio bat sortzea, udal-kudeaketa eta -praktika gizarte anitz baten eskakizunetara egokitzeko, oinarri hartuta tratu-berdintasuna, desberdintasunerako eskubidea eta interakzio positiboa, esku hartzeko printzipio gisa. - Lantalde bat gidatzea planaren garapenean eta ebaluazioan.
HELBURUA	Basauriko Udalak bizikidetzaren kulturarteko kudeaketaren alde duen konpromisoa islatzea jardura zehatzetan. Planaren garapenean inplikaturako departamentuen kopurua handitzea. Udal-zerbitzuak berrikustea eta eguneratzea, gizarte anitz baten eskaerei eta beharrei erantzuteko.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Planaren aurkezpenen kopurua. Bilerak departamentuekin. Hiru hilean behingo koordinazio-bilerak garapen- eta ebaluazio-taldearekin. Aniztasuna maila guztietan integrazteko eginiko urratsak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Parte hartu duten departamentuen kopurua. Beste departamentu batzuekin batera eginiko proiektuak
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



	1. KULTURARTEKOTASUNAREKIKO UDAL-KONPROMISOAREN EREMUA
EKINTZA	1.7. Bultzada ematea barne-mailan tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren ikuspegiari, oztoporen bat sor dezaketen edo inklusiboagoak izan daitezkeen alderdiak aldatuta udal-zerbitzuak eskuratzeko araudietan eta izapideetan.
XEDE-TALDEA	Udal departamentuetako teknikariak eta politikariak
DESKRIBAPENA	- Tokiko araudia aldatzeko prozesuarekin jarraitzea (2016-2020 aldirako Basauriko Bizikidetza eta Aniztasun Planaren 3.1.1 ekintza), 0 mailako aldaketei dagokienez: - Administrazio elektronikoko dokumentuak normalizatzeko prozesua aprobeztatuta. - Departamentuei formakuntza eskainiz, dagozkion 0 mailako aldaketak aplikatzeko. - Informazio-katalogoak Basaurin hitz egiten diren beste hizkuntza batzuetara egokitzea. - Itzulpen- eta interpretazio-zerbitzuaren erabilera indartzea udal-zerbitzuetan.
HELBURUA	Nazionalitate, jatorri, arraza edo etorkiagatik diskriminatzen duen udal-araudirik ez dagoela bermatzea, eta udal-teknikarien tratu-berdintasuneko jarrera berrestea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Benetan eginiko aldaketak
EMAITZEN EBALUAZIOA	Udalaren ohiko kanalen bidez (Herritarrentzako Arreta Bulegoa, AKI) jokabide diskriminatzaleekin lotuta jasotako kexen kopurua. Aldatutako udal-araudia. Immigrazioko teknikariaren balorazio kualitatiboa.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria Departamentuetako arduradunak Aholkularitza juridikoa
IRAUPENA/DATA	2023, 2024, 2025



	1. KULTURARTEKOTASUNAREKIKO UDAL-KONPROMISOAREN EREMUA
EKINTZA	1.8. Teknikarientzako urteko formakuntza-programa, migrazio-prozesuei, kulturartekotasunari, aniztasunari, tratu-berdintasunari eta estereotipoen eta aurreiritzien aurkako borrokari buruzkoa, hobeto bete ditzaten gizarte anitz batean administrazio publiko gisa dituzten zereginak.
XEDE-TALDEA	Udaleko, erakunde autonomoetako eta udal-enpresetako teknikariak. Udal-zerbitzuak betearazteko kontratatutako enpresak.
DESKRIBAPENA	- Formakuntza-programa bat diseinatzea urtero teknikarientzat, kulturartekotasuna, kultura-aniztasuna, tratu-berdintasuna eta immigrazioari loturiko estereotipo negatiboen aurkako borroka lantzeko. - 6-8 orduko iraupenarekin, egokituta departamentu/erakunde autonomo/enpresen errealitateara eta eskumenetara. - Elementu teorikoak eta tresnak barne hartuko ditu, praktikara eramateko departamentuen egunerokoan, bai eta akonpainamendu bat ere, kulturarteko ikuspegia txertatzeko departamentu bakoitzaren eskumenen garapenean.
HELBURUA	Teknikariak sentsibilizatzea migrazioen errealitateaz, kultura-aniztasunaz eta fenomeno horrek Basaurin duen islaz. Udalak tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta kulturartekotasunaren alde egiten duen apustua gauzatzea, departamentuen eta erakunde autonomoen politiketan txertatuz. Tresnak ematea haien eguneroko lana udalerriaren kultura-aniztasunera egokitzeko. Aurre egitea atzerritar jatorriko pertsonen inguruko estereotipo faltsu eta negatiboei, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko udal-zerbitzuetan.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Eginiko formakuntza-saioak Kulturarteko ikuspegia txertatzeko eginiko akonpainamendu-saioak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Formakuntzara doazen pertsonen kopurua. Gutxienez lehentasuna duten departamentu guztien parte-hartzea (gizarte-ekintza, HAZ, berdintasuna, kultura, hezkuntza, gazteria eta kirola, euskara, osasuna eta merkataritza, enplegua, etxebizitza, parte-hartzea, bitartekaritza, kontratazioa, udaltzaingoa, giza baliabideak eta aholkularitza juridikoa). Parte-hartzaileen ebaluazioa. Immigrazioko teknikariaren balorazio kualitatiboa.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



	1. KULTURARTEKOTASUNAREKIKO UDAL-KONPROMISOAREN EREMUA
EKINTZA	1.9. Udal-komunikazioko politika bat finkatzea, bat etorriko dena kulturartekotasunaren balioekin (tratu-berdintasuna, desberdintasunerako eskubidea eta interakzio positiboa).
XEDE-TALDEA	Prentsa-arduraduna, programen arduradun teknikoak, agendaren eta webgunearen argitalpenaz arduratzen diren teknikariak.
DESKRIBAPENA	- Kulturarteko bizikidetzaren aldeko apustuarekin bat datorren komunikazio-estrategia instituzionala diseinatzea (barnekoa eta kanpoko). - Udaleko departamentuan eta arloen artean koordinatutako komunikazio-politika bat planteatzea, aintzat hartuko dituen aniztasuna, tratu-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta hiztegiaren tratamendu egokia. - Teknikarien aurkezpena eta formakuntza. - Sortzen den dokumentazioaren jarraipena.
HELBURUA	Aniztasuna kudeatzeko kulturarteko ereduaren aldeko apustua berretsiko duen komunikazio-politika instituzionala definitzea eta ezartzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Komunikazio-estrategia jasotzen duen dokumentua. Programen arduradunen parte-hartzea. Eginiko formakuntza Kanpainen jarraipena.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Immigrazioko teknikariaren balorazio kualitatiboa.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria Prentsa-arduraduna
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025

1. KULTURARTEKOTASUNAREKIKO UDAL-KONPROMISOAREN EREMUA



EKINTZA	1.10. Bi urtez behingo lan-tailerrak tokiko hedabideekin, migrazioaren gaiaren inguruan sentsibilizatzeko eta gogoeta egiteko, gaia landuz giza eskubideen errespetutik.
XEDE-TALDEA	Hedabideetako profesionalak.
DESKRIBAPENA	Bi urtean behin, gutxi gorabehera bi orduko lan-saio bat egitea hedabideetako profesionalekin (hedabide idatziak, iratiak eta ikus-entzunezkoak), Planaren filosofiari loturiko gaien inguruan.
HELBURUA	Migrazioekin, bizikidetzarekin, kultura-aniztasunarekin eta abarrekin loturiko gaiak lantzea giza eskubideen eta gizarte kohesionatu eta pluralen balioen errespetutik.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Eginiko saioen kopurua. Gutxienez bi hedabide idatzik eta ikus-entzunezko beste bik parte hartzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Parte-hartzaileen eta antolatzaileen ebaluazioa eta iritzia jasotzea. Immigrazioko teknikariaren balorazio kualitatiboa.
ARDURADUNA	Immigrazio-teknikaria/Komunikazio-arduraduna.
IRAUPENA/DATA	2023, 2024, 2025

2. HARRERAREN EREMUA



EKINTZA	2.1. Harrera- eta inklusio-sarea indartzea, bizilagun berriei laguntzeko baliabideak eskuratzen, eta, hala badagokio, inklusioa errazteko neurri koordinatuak hartzea.
XEDE-TALDEA	Departamentuak, erakunde autonomoak eta udal-enpresak (HAZ, Gizarte Ekintza, Enplegua, Euskara, BHG, Udaltzaingoa, LHIEB), beste erakunde batzuk (Osakidetza, ikastetxeak eta Berritzegune, HHI, Lanbide) eta harrerari loturiko ekintzak egiten dituzten erakundeak, bai eta Basaurin bizi diren atzerritar jatorriko biztanleak ere.
DESKRIBAPENA	Kulturarteko bizikidetza-planaren lan-ildoak aurkeztea bilera batean eta sarearen funtzionamendua adostea, honako eduki hauekin: Urtero, lehen hiruhilekoan, fitxa bat pasatuko da zerbitzu bakoitzaren informazioa eguneratzeko eta gainerako zerbitzuekin partekatzeko. Aldian behin, informazioa bilduko da biztanleria immigrantearen eskaera eta egoerei buruz. Beste informazio interesgarri batzuk ematea: urteko erroldaren azterketa eta beste batzuk (informazio-hitzaldiak, kanpainak, etab.) Nazionalitatea/jatorria aldagaia sartzeara memorietan, jarraipen bereiziak egin ahal izateko. Formakuntza espezifiko bat antolatuko da, interesgarria bada.
HELBURUA	Ingurunea ezagutzeko eta udal-bizitzan sartzeko oinarritzko izapideei buruzko funtsezko informazioa ematea iritsi berriei eta, oro har, herritar guztiei. Lan koordinatu bat bultzatzea, Udalaren eta harreraren arloan diharduten erakundeen artean, arlo horretan eskaintzen diren zerbitzuak egokitzeko.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Eginiko bileren kopurua. Eginiko urratsen urteko balorazioa. Esku hartzeko proposamenak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Sarearen funtzionamenduari buruzko urteko txostena. Parte hartzen duten erakundeen kopurua. Udaleko teknikarien eta parte hartzen duten erakundeen balorazioa.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



	2. HARRERAREN EREMUA
EKINTZA	2.2. "Ongi etorri" harrera-gida optimizatzea, profesionalentzako lan-tresna eta iritsi berrientzako informazio-tresna gisa.
XEDE-TALDEA	Udal-departamentuak eta harrera-ekintzak egiten dituzten erakundeak, bai eta Basaurin bizi diren atzerritar jatorriko biztanleak ere.
DESKRIBAPENA	- Kokapen egokia udalaren webgune berrian. - Urtero eguneratzea eta berrikuntzak beste formatu dinamikoago batzuetan zabaltzea (sare sozialak, hitzaldi espezifikoak, etab.). - Koordinaziorako bilera formalak eta ez-formalak egitea, biltzen duen informazioa eta harrera-baliabideak hobetzeko udal-teknikariekin eta beste erakunde garrantzitsu batzuekin (Osakidetza, ikastetxeak, Behargintza, gizarte-erakundeak, etab.).
HELBURUA	Ingurunea ezagutzeko eta udal-bizitzan sartzeko oinarritzko izapideei buruzko funtsezko informazioa ematea iritsi berriei eta, oro har, herritar guztiei.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Eginiko urratsen urteko balorazioa: eguneratzea, webgune berria kokatzea. Eguneratzean parte hartzen duten erakundeak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Udaleko teknikarien eta parte hartzen duten erakundeen balorazioa. Gidara eginiko bisiten kopurua. Erabiltzaileen gogobetetze-indizea.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



2. HARRERAREN EREMUA	
EKINTZA	2.3. Abian jartzea "Basauri interkulturala" webgunea eta jarraipena ematea Udalaren sare sozialen aldizkako erabilerari, baliabideei, bizikidetzari, aniztasunari, legediari, kulturartekotasunari eta abarri buruzko informazio interesgarria zabaltzeko.
XEDE-TALDEA	Udaleko eta beste erakunde batzuetako langileak, atzerritarrak, herritarrak oro har, elkarteak, ikastetxeak, prentsa, etab.
DESKRIBAPENA	- "Basauri Interkulturala" mini-weba diseinatzea eta mantentzea, udalaren webgunearen barruan (egungoa eta berria), orain sakabanatuta dagoen informazio guztia jasoko duena: harrera, kulturartekotasuna, migrazioak, bizikidetzak, aniztasuna, zurrumurruen aurkako estrategia, etab. - Komunikazio- eta modernizazio-departamentuekin koordinatzea. - Eduki horien komunikazio-estrategia definitzea, bai Udalaren web orrian bai sare sozialetan.
HELBURUA	- Informazioa eskuratzea erraztea. - Parte-hartzea bultzatzeko baliabideak, kanpainak, jarduerak, ekimenak... ikusaraztea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Webgunearen argitalpenak. Sare sozialetako argitalpenak. Inpaktuen zenbaketa eta analisisia.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Urtean behin bilera bat egitea elkarteetako ordezkariekin eta hainbat jatorritako pertsonekin, emaitzak aztertzeko.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria eta komunikazioko arduraduna.
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



	2. HARRERAREN EREMUA
EKINTZA	2.4. Bultzada GERTU zerbitzuari (Atzerritarrentzako aholkularitza juridikoko udal-zerbitzua).
XEDE-TALDEA	Udal-langileak, atzerritarrak edo atzerritar jatorriko pertsonak, enplegatzaileak, enpresak eta herritarrak oro har.
DESKRIBAPENA	- Atzerritartasunaren arloko aholkularitza juridikoko zerbitzua, arloan esperientzia duen abokatu baten eskutik, astean behin gizarte-zerbitzuetan. - Informazioa eta formakuntza herritarrentzako arreta-zerbitzuko, gizarte-zerbitzuetako, BHGko eta auzo-bitartekaritza programako udal-teknikarientzat, bai eta udalerriko beste erakunde batzuetako kideentzat ere (HHI, formakuntza-zentroak, migratzaileen elkarteak, etab.). - Pertsona eta enpresa kontratatzaileentzako informazioa. - Gai interesgarriei buruzko informazio-hitzaldiak. - Zerbitzuaren informazio-euskarria diseinatzea eta haren zabalkundelana egitea (webgunea, hedabideak, mailinga, aurkezpenak, etab.). - AHOLKU Sarearekin koordinatzea.
HELBURUA	Atzerritarren edo atzerritar jatorriko pertsonen gizarteratzea erraztea, hiru urrats nagusi dituen hasieran: bizileku- eta lan-baimena eskuratzea, familia elkartzeko eskubidea baliatzea eta aldi baterako bizilekua bizileku iraunkor bihurtzea. Udal-zerbitzuei laguntzea etorkinei arreta ematen, gizartean baztertuta geratzeko arrisku larrian edo zaurgarritasun-egoera nabarmenean daudenak beren administrazio-egoeratik.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Eginiko formakuntzen kopurua. Laguntza jaso duten pertsonen kopurua. Zerbitzu edo erakunde bideratzaileen kopurua.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Jardueren urteko memoria. Erabiltzaileen eta zerbitzu bideratzaileen gogobetetze-indizea.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria.
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



	2. HARRERAREN EREMUA
EKINTZA	2.5. Gaztelania ikasteko ibilbide koordinatua sustatzea.
XEDE-TALDEA	Basauriko biztanleak
DESKRIBAPENA	Beharrak eta zailtasunak baloratzea formakuntza hau eskaintzen ari diren erakundeekin batera. Ikaskuntza-ibilbide bat definitzea era koordinatuan, eguneroko bizitzan aritzeko gutxieneko hizkuntza-maila ahalbidetuko duena, maila desberdinekin eta hainbat egoeratarara egokituta (emakumeak seme-alaba adingabeekin, motibazioa, prestasuna, etab.). Beharrezkoak diren baliabideak definitzea eta abian jartzea (HHI, Hizkuntza Bikoteen Programa, hurbiltzeko, sakontzeko espazioak, Hizkuntzen Eskola Ofiziala, etab.).
HELBURUA	Gaztelania ikasiz atzerritarren autonomia indartzea, arlo pertsonalean, familiarrean, laborean, sozialean eta hezkuntzan. Hizkuntza ikasteko baliabideak eta hizkuntza-maila optimizatzea. Bizikidetzeta eta gizarteratzea nahiz laneratzea indartzea hizkuntza ofizialetako bat ikasita. Hainbat jatorri, hizkuntza eta kulturatako pertsonak harremanetan jartzeko espazioak sortzea, errespetuan eta elkar aitortzan oinarrituta.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Parte-hartzaileen kopurua, kolektiboen arabera bereizita (generoa, adina, jatorria, etab.). Parte hartzen duten erakundeen kopurua. Hurbiltzeko eta motibatzeke abian jarritako egitasmoak. Diseinatutako ebaluazio-sistema.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Parte-hartzaileen kopurua. Eskuratutako maila. Gogobetetze-maila. Parte hartzen duten erakundeen balorazioa.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



2. HARRERAREN EREMUA	
EKINTZA	2.6. Euskararen munduari loturiko erakunde eta entitateen sarea sustatzea, pertsona migratzaileek hizkuntza ikasi eta erabil dezaten.
XEDE-TALDEA	Basaurin bizi diren etorkinak. Basauriko ikastetxeetan eskolaturiko atzerritar jatorriko adingabeak.
DESKRIBAPENA	Beharrak eta zailtasunak baloratzea formakuntza eta sentsibilizazio hori eskaintzen duten erakundeekin batera (Udala, Hezkuntza Saila, Ikastetxeak, Berritzegune, IGEak, euskaltegiak, kirol- eta kultura-elkarteak, etab.), bi kolektibo bereiziz: - Udalerriko ikastetxeetako atzerritar jatorriko ikasleak. - Atzerritar jatorriko udalerriko bizilagunak. Ibilbide bat ezartzea neurri desberdinekin, erakunde bakoitzaren gaitasunen eta aukeren arabera, aukera emango dutenak ikasleek hizkuntza menderatzeko eta erabiltzeko, eta atzerritar jatorriko biztanleak euskarara hurbiltzeko eta ikasteko. Besteak beste: - Euskara Departamentuarekin koordinatuta, era pilotuan funtzionatzen ari den errefortzu-programa ikastetxeetan. - Euskararen erabilera bultzatzea haurren kirol-jardueretan (Euskara Departamentuaren programa). - Euskarazko jardueretan parte hartzeko informazioa eta motibazioa. - Udal-euskaltegian 0 mailako euskara-ikastaroei buruzko informazioa indartzea. Aldizka ebaluatzea programak, koordinazioa eta bideratze-lana.
HELBURUA	Formakuntzaren komunikazio-hizkuntza menderatzen dela bermatzea, formakuntza-ibilbide egokia eta integrazio sozial eta pertsonal positiboa ahalbidetuko dituen. Udalerrian hitz egiten diren hizkuntzen eta kultura-adierazpenen ekarpenak aitortzea eta baloratzea. Bizikidetza eta gizarteratzea nahiz laneratzea bultzatzea euskara ikasita. Udalerriko hizkuntza-aniztasuna aitortzea eta baloratzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Parte-hartzaileen kopurua, kolektiboen arabera bereizita (generoa, adina, jatorria, etab.). Parte hartzen duten erakundeen kopurua. Kolektibo bakoitzari begira abian jarritako egitasmoak. Diseinatutako ebaluazio-sistema.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Parte-hartzaileen kopurua. Eskuratutako maila. Gogobetetze-maila. Parte hartzen duten erakundeen balorazioa.



ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria / Euskara-teknikaria
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



3. HEZKUNTZAREN EREMUA	
EKINTZA	3.1. Ikastetxeekiko lankidetza sustatzea bizikidetzari, aniztasunari, tratu-berdintasunari, diskriminaziorik ezari, desberdintasunerako eskubideari, gizarte-kohesioari eta abarri dagokienez, ikasleei, irakasleei eta guraso-elkarteei begira
XEDE-TALDEA	Udalerriko ikastetxeak: irakasleak, ikasleak eta familiak, guraso-elkartek Berritzegune.
DESKRIBAPENA	- Ikastetxeekiko harremana sendotzea hainbat programaren bidez, lankidetzarako eremuak ezartzeko bizikidetzaren eta aniztasunaren alorrean, gai honetan lan egiteko interesa duten ikastetxeak detektatuz eta haien interesak eta lehentasunak zehaztuz. - Ikastetxeek harrera-sarean parte hartzeko sistema bat ezartzea. - "Atzerritar jatorriko lehen hezkuntzako ikasleen euskara indartzea" programa pilotua baloratzea ikastetxeekin, eta emaitzak optimizatzeko bi aldeek konpromisoak sustatzea. - Gizarteak errealitate "ez-normatiboarekiko" (genero-aniztasuna, funtzionalak eta beste era batekoak) duen errespetua baliatzea etorkinekiko eta haien kultura, erlijio edo hizkuntzarekiko errespetua bultzatzeko, sentsibilizazio-estrategia oinarrituta "bestearekiko errespetuan" eta aniztasunaren balorazioan (hizkuntza, kultura, esperientziak, etab.). - "Ezagutu - Zurrumurruek Aurkako Estrategia!" programaren urteko eskaintza mantentzea, udalerriko ikastetxeei begira, eta urtero aurkeztea apiril-maiatzean. - Ikastetxeak bultzatzea arlo honetako beste kanpaina edo jarduerak batzuetan parte hartzera.
HELBURUA	Ikastetxeei laguntzea tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta desberdintasunarekiko errespetuaren aldeko lanean.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Programa bakoitzean parte hartzen duten ikastetxeen kopurua Eginiko jarduerak. Garatutako programa berriak
EMAITZEN EBALUAZIOA	Prozesu honetan parte hartzen duten ikastetxeen eta eragileen balorazio-galdetegia. Formakuntzetan parte hartzen duten pertsonen kopurua (ikasleak, irakasleak, familiak). Errefortzu-programetan parte hartzen duten ikasleen kopurua. Ikastetxeen balorazio kualitatiboa. Immigrazioko teknikariaren balorazio kualitatiboa.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



4. FORMAKUNTZAREN ETA ENPLEGUAREN EREMUA	
EKINTZA	4.1. Sare-lana sustatzea enpleguari eta formakuntzari loturiko erakunde guztiekin, etorkinen gizarteratzea, laneratzea eta enplegarritasuna hobetzeko prozesuak zehazte aldera.
XEDE-TALDEA	Enplegu Departamentua. Gertu zerbitzua. BGH. Lanbide eta zentro kolaboratzaileak (ADSIS Fundazioa - Basauri) LHIEB eta udalerriko beste ikastetxe batzuk (HHI, institutuak, etab.) Beste erakunde batzuk.
DESKRIBAPENA	- Helburua da harreman sendo bat sortzea enpleguaren, formakuntzaren eta gizarteratzearen arloan diharduten departamentuen eta erakundeen artean, atzeritarren enplegarritasuna hobetzea harturik ardatz gisa: Batera aztertzea migratzaileen arreta hobetzeko dauden oztopoak eta baliabideak. Formakuntza-jarduerak eta lan-aurrekoak hobetzeko proposamenak. Informazio-kanalak hobetzea. Orientazioaren kalitatea indartzea migratzaileei espezifikoki eragiten dieten gaitan. Enpresa-sarea sentsibilizatzeko lana hobetzeko proposamenak.
HELBURUA	Formakuntza/enpleguaren arloko zerbitzu eta erakundeen sare-lana sustatzea, atzeritarrak gizarteratzeko eta laneratzeke ibilbide egokiak garatze aldera. Horretarako diseinatutako ekintzak abian jartzea eta aldian-aldian haien eraginkortasuna ebaluatzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Koordinazio-bileren kopurua. Hobetzeko protokoloak eta ekintzak sortzea. Kolektiboari buruzko datuak/emaitzak aztertzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Ibilbideetan parte hartzen duten pertsonen laneratzea (%). Formakuntza-ekintzetan parte hartzen duten pertsonak (%). Formakuntza-prozesuak amaitzea (%).
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria Enplegu teknikiariak
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



	4. FORMAKUNTZAREN ETA ENPLEGUAREN EREMUA
EKINTZA	4.2. Atzerritar jatorriko emakumeak aktibatzea, haien gizarteratzea eta laneratzea errazteko.
XEDE-TALDEA	Basaurin erroldatutako atzerritar jatorriko emakumeak.
DESKRIBAPENA	Diagnostikoaren datuen arabera, interes bereziko kolektibo bat dago, kontuan izanik Basaurin eraiki nahi den gizarte igualitario eta kohesionatua: udalerrian bizi diren atzerritar jatorriko familiak, bertan jaioak eta eskolaturiko seme-alabak dituztenak. Gure gizarteko harrera-prozesuak eta kide sentitzekoak bultzatzea funtsezko helburua da bizikidetzarako eta Basauri era kolektiboan eraikitzeak. Prozesu horietan erabakigarria da emakumeen zeregina, eta haien aktibazio pertsonal, sozial eta laboralak antzeko prozesu bat bultzatuko du beren familietan. Horregatik planteatzen dugu ekintza hau, elkarlanean hezkuntza-, lan- eta gizarte-arloko eta beste alor batzuetako eragileekin (ikastetxeak, HHI, BHG, BGZ, emakumeen elkarteak, beste elkarte batzuk, etab.). - Hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) ikasteko ibilbideak erraztea. - Lan-aurreko tailerretan parte hartzea bultzatzea, BHGrekin lankidetzan eta lan-mundurako aktibazio-prozesuetan. - Ikasketak baliozkotzeko prozesuak erraztea. - Sozializazio-guneetarako sarbidea bultzatzea (elkarteak, zerbitzu publikoak, formakuntza-zentroak, etab.)
HELBURUA	Udalerriko familien gizarteratze-prozesuak eta kide sentitzeko prozesuak bultzatzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Bilerak eta akordioak departamentuekin eta erakundeekin. Eginiko lan-aurreko tailerrak. Ikasketak baliozkotzeko buruz eginiko informazio-saioak, edo zerbitzu espezializatuera eginiko bideratzeak. Ekintzetan parte hartzen duten emakumeen kopurua: formakuntza-ekintzak, lan-aurrekoak, hizkuntzak, ikasketak baliozkotzea, elkarteak, eskola-jarduerak, etab.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Formakuntza-ekintzetan parte hartzen duten emakumeen kopurua. Formakuntza-ekintzak amaitzen dituzten emakumeak (%) Enplegu bat lortzen duten emakumeen kopurua. Ikasketak baliozkotzeko prozesuak hasten dituzten emakumeen kopurua eta % Jarduera publikoetan parte hartzen duten emakumeen kopurua eta % (elkarteak, ikastetxeak, bestelakoak...).
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria. Berdintasun-teknikariak, gizarte-zerbitzuak eta BHG.
LEHENTASUNA	2023, 2024, 2025



5. SENTSIBILIZAZIOAREN ETA INTERAKZIO SOZIALAREN EREMUA	
EKINTZA	5.1. Udalaren laguntza duten elkarteek tratu-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta kulturarteko bizikidetzaren sustatzeko eginiko praktikak indartzea, bai sustatzen dituzten jarduerari bai haien egiturari eta funtzionamenduari dagokienez.
XEDE-TALDEA	Udalerriko elkarteak.
DESKRIBAPENA	- Helburua partekatzea eta akordio batera iristea inplikaturako departamentuekin. - Elkarteak sentsibilizatzea Udalak kulturarteko bizikidetzaren alde eginiko apustuaren eta horrek elkarte-sarean dituen ondorioen inguruan (kulturarteko bizikidetzaren plana aurkeztea, dirulaguntzen deialdiak aurkeztea, kaleko ekintzak, etab.). - Esku hartzeko moduen adibideak ematea, bai ekintza espezifiko bidez bai barne-egituren bidez. - Erakundearen memorien jarraipena egitea, ikuspegi honen txertatzea baloratzeko eta ikusarazteko. - Lan hau koordinatzea zurrumurruek aurkako estrategia elkarte-sarera zabaltzeko lanarekin, zurrumurruek aurkako maparen bidez. - Elkarte-sareak komunikazio-politikan duen konpromisoa ikusaraztea.
HELBURUA	Udalaren dirulaguntzak jasotzen dituzten elkartearen lankidetzaren bultzatzea tratu-berdintasunaren, aniztasunaren balorazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren aldeko borrokan.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Dirulaguntzen deialdia aurkezteko saioa. Proposatutako ekintzak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta kulturarteko bizikidetzaren aldeko ekintzak proposatzen eta gauzatzen dituzten erakundearen kopurua eta esparruak.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria. Dirulaguntzak ematen dituzten departamentuetako teknikariak: Kultura, Gazteria, Kirolak, Hezkuntza, Jaiak, Euskara, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasuna.
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



5. SENTSIBILIZAZIOAREN ETA INTERAKZIO SOZIALAREN EREMUA	
EKINTZA	5.2. Tratu-berdintasunarekiko, desberdintasunerako eskubidearekiko eta interakzio positiboarekiko konpromisoa sozializatzea elkarre-sarean eta Basauriko herritarren artean, aniztasuna kudeatzeko Planak dituen elementu gisa.
XEDE-TALDEA	Basauriko Udaleko gobernu-taldea eta arduradun politikoak. Gizarte-erakundeak. Basauriko herritarrak.
DESKRIBAPENA	- Kulturarteko Bizikidetza Planari buruzko informazio-prozesu bat diseinatzea herritarren eta udalerriko gizarte-eragileen artean (prentsurrekoak, infografiak, tip eta baliabide grafikoak, ikus-entzunezkoak, etab.), komunikazioa mantentzeko planaren indarraldian. - Aldizkako zabalkundea hainbat hedabideren bidez: prentsa, webgunea eta sare sozialak, jarduera zehatzak, lan-sareak, etab.
HELBURUA	Basauriko Udalak kulturartekotasunean oinarrituriko bizikidetzarekin duen konpromisoa ikusaraztea. Basauriko herritarrak informatzea eta sentsibilizatzea migrazioaren gaiaren eta udalerrian egin beharreko jardueren inguruan. Herritarrak eta gizarte-erakundeak proposaturiko jardueretan laguntzera gonbidatzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Prestaturiko materiala Zabalkunderako eginiko jarduerak Aldizkako presentzia hedabideetan.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Presentzia hedabideetan eta sare sozialetan Informazioa jaso duten herritarren eta erakundeen kopurua Immigrazioko teknikariaren balorazio kualitatiboa.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



5. SENTSIBILIZAZIOAREN ETA INTERAKZIO SOZIALAREN EREMUA	
EKINTZA	5.3. Bultzada ematea bizikidetzaren, aniztasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloari loturiko erakundeak indartzeko eta haien gizarte-partaidetzarako prozesuari.
XEDE-TALDEA	Migratzaileen elkarteak. Kulturarteko bizikidetzarekin, tratu-berdintasunarekin eta diskriminaziorik ezarekin sentsibilizatutako elkarteak.
DESKRIBAPENA	- Elkarteak eta haien lana laguntzea kulturarteko bizikidetzan, diskriminazioren aurkako borrokan eta tratu-berdintasunaren alorrean, dirulaguntzen bidez. - Elkarteekiko aldian behingo harremanak zehaztea, era koordinatuan lan egiteko planaren jardun-lerroetan.
HELBURUA	Migrazioen eta bizikidetzaren arloari loturiko erakundeak indartzea eta haien zeregina babestea, erakunde horiek gizartean ikusarazteko eta haien partaidetza bultzatzeko. Bultzada ematea erakundeen eta toki-administrazioaren arteko elkarriketari, antzeko estrategiak eta planteamenduak indartzeko bizikidetzaren eta aniztasunaren arloan.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Bileren aktak. Dirulaguntza jasotzeko aurkeztutako proiektuak. Baterako jarduerak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Harreman bat dagoen elkarten kopurua. Jarduera eta lan-ildo komunak
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025



5. SENTSIBILIZAZIOAREN ETA INTERAKZIO SOZIALAREN EREMUA	
EKINTZA	5.4. Atzerritar jatorriko pertsonak Basauri bezalako udalerrri anitz baten bizitzan parte har dezaten sustatzea (elkarteak, guraso-elkarteak, partaidetza-prozesuak, hauteskundeak, jaiak, espazio publikoak, kulturalak, kirolekoak, auzokoak, etab.)
XEDE-TALDEA	Basauriko bizilagunak. Elkarteak.
DESKRIBAPENA	- Atzerritarren boto-eskubideari buruzko informazio publikoa bermatzea. - Gai hauei buruzko informazioa bermatzea hainbat hizkuntzako materialak erabilia. - Aldian-aldean informazioa eguneratzea Ongi etorri gidan, udalaren webgunean eta sare sozialetan. - Udalerrria eta haren dinamikak ezagutarazteko programak egiten laguntzea. - Hizkuntza ofizialak ikasteko ibilbidean sartzen laguntzea, sozializazioa eta parte-hartzea errazteko. - Antolaturiko jardueren berri izaten laguntzea, udal-agendan sartuta elkarleen eta erakundeen jarduerak. - Basauriko bizilagun berriek gai jakin batzuen inguruan dituzten iritziak biltzeko prozedura diseinatzea. - 5.6. ekintza.
HELBURUA	Udalerriko bizilagunak diren aldetik, bultzada ematea atzerritar jatorriko biztanleek udalerriko eremu formalean eta informalean parte hartzeari.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Informazio eguneratua eta zabaldua. Bilera teknikoak estatistikako, partaidetzako eta beste departamentu eta erakunde batzuetako arduradunekin. Ingurunea ezagutarazteko eginiko programak. Iritziak biltzeko tresna.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Balorazio kualitatibo kontrastatua departamentuekin eta erakundeekin, parte-hartze mailari, interesei eta proposamenei buruzkoa.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria. Partaidetzako teknikaria. Programez arduratzen diren teknikariak.
IRAUPENA/DATA	2023, 2024, 2025



5. SENTSIBILIZAZIOAREN ETA INTERAKZIO SOZIALAREN EREMUA	
EKINTZA	5.5. Zurrumurruen aurkako estrategia bat finkatzea udalerrian, herritarren sentsibilizaziorako eta partaidetzarako tresna gisa, kulturarteko bizikidetzaren alorrean.
XEDE-TALDEA	Basauriko herritarrak. Elkarte-sarea. Ikastetxeak. Hedabideak. Udaleko teknikariak.
DESKRIBAPENA	- ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarean parte hartzen jarraitzea eta haren jarduerekin koordinatzea. - Baliabideak jartzea bultzada emateko zurrumurruen aurkako estrategiaren oinarritzko elementuen dinamizazioari: formakuntza/gogoeta guneak, sarearen zabalkundea, sentsibilizazio-ekintzak zehaztu eta gauzatzea, beste sare batzuekin koordinatzeko espazioak sortzea, eta zurrumurruen aurkako estrategiak hainbat jatorri eta kulturatako bizilagunen arteko errespetuari eta interakzio positiboari eginiko ekarpena goraipatzea eta ikusaraztea. - Komunikazio-estrategia bat diseinatzea eta garatzea, sarea zabaltzeko eta herritarrak kulturarteko bizikidetzaren alde sentsibilizatzeko, errespetuan oinarrituta eta bizikidetzaz zailtzen eta pobretzen duten estereotipoak eta aurreiritziak ezabatuta. - Espazio publikoetan eginiko ekintzak indartzea, elkarlanean Udaleko beste departamentu, erakunde eta entitate batzuekin. - Loturak ezartzea zurrumurruen aurkako strategiaren eta III. Kulturarteko Bizikidetzaz Planaren garapenaren artean, helburuak eraginkortasun handiagoz betetzeko. - Dagoeneko abian dauden esku-hartzeak eustea (ikastetxeak, OLHUI, HHI, liburutegiak, Social Antzokia...) eta lankidetzaz berriak planteatzea (kirola, merkataritza, ostalaritza...). - Basauriko zurrumurruen aurkako urteko topaketa mantentzea, bai eta bi urtean behin beste sare batzuekin eginikoa ere. - Prozesuan aurrera egitea ahalbidetuko duen aldi behingo ebaluazioa egitea, behar diren elementuak gehituta faseen eta estrategien parte hartzeko mailen arabera.
HELBURUA	Herritarrak sentsibilizatzea (elkarte-sarea, eskola-eremua, merkataritza... barne) atzeritar jatorriko pertsonen estereotipoak eta aurreiritziak bizikidetzaz eta interakzio sozialean dituzten eragin negatiboak buruz.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Komunikazio- eta zabalkunde-kanpainak Eginiko urteko ekintzak Eginiko formakuntzak Inplikaturako pertsonak, erakundeak eta departamentuak
EMAITZEN EBALUAZIOA	Estrategian parte hartzen duten pertsonen, erakundeen... kopurua. Esku hartzen ari den alorren kopurua.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025

5. SENTSIBILIZAZIOAREN ETA INTERAKZIO SOZIALAREN EREMUA



EKINTZA	5.6. Basauri ikusaraztea jada baden gizarte anitz gisa, egunez egun eraikitzen dena guztion ekarpenarekin.
XEDE-TALDEA	Basauriko herritarrak, bai autoktonoak bai atzerritar jatorrikoak.
DESKRIBAPENA	- Era honetako espazioak eta harremanak bultzatzea, bai eta horiek ikusaraztea ere, udalak diruz lagundutako proiektuen bidez. - Zurrumurruen aurkako estrategia: parte hartzeko eta elkarrekin lan egiteko espazio bat da, beste topagune batzuk ezagutaraz eta ikusaraz ditzakeena. - Hizkuntza-bikoteak: jatorri, hizkuntza eta kultura desberdineko pertsonen arteko harremanak estutzen ditu. - Helburu hau zeharka lantzea udal-programazioetan (kultura, gazteria, euskara, hezkuntza, berdintasuna, merkataritza, partaidetza, kirola...), plana ezartzeko koordinazio-bileren bitartez. - Elkar hobeto ezagutzeko urteko kanpaina sustatzea, egunerokotasunari loturiko gaietan (gastronomia, hizkuntzak, bizi-esperientziak...) eta gai unibertsaletan (heriotza, maitasuna, ametsak...). Kanpaina hori beste departamentu, erakunde, entitate eta pertsona batzuekin koordinatuta antolatzea, inpaktua handitzeko. Puntu hau sartzea komunikazio-politikan eta zabalkunde-ekintzetan.
HELBURUA	Baliabideak eta espazioak sortzea bultzada emateko jatorri desberdineko pertsonen arteko harremanei eta loturei, elkar ezagutzari eta aitortzari, eta pertsona guztiek Basauriko bizikidetzari egin diezaioketen ekarpenari.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	- Komunikazio-politikaren dokumentua. - Antolatutako urteko kanpainak. Beste departamentu batzuetako programazioetan sartzeko proposamenak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Ekintzetan parte hartzen duten pertsonen kopurua (atzerritarrak eta autoktonoak). Sortutako programak eta espazioak. Hedabideetan, sare sozialetan eta beste euskarri batzuetan agertzea. Inplikaturako departamentuak, zerbitzuak, erakundeak... Pertsona parte-hartzaileen balorazioak. Erakunde, zerbitzu eta abarrekin batera eginiko balorazioa.
ARDURADUNA	Immigrazioko teknikaria. Udal-teknikariak. Prentsa-arduraduna.
IRAUPENA/DATA	2022, 2023, 2024, 2025